

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### **Deialdia eta oinarri arauak, eskola garraiorako laguntzak emateko 2016-2017 ikasturteko udal programaren bitartez**

Alkatetzaren urriaren 3ko Ebazpen bidez onartu ziren deialdia eta oinarri arauak eskola garraiorako laguntzak emateko 2016-2017 ikasturteko udal programaren bitartez.

Bat etorri azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 52.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira, denek jakin ditzaten.

#### **Eskola garraiorako laguntzak emateko udal programa arautzen duten oinarriak, 2016-2017 ikasturterako**

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25. artikuluan ezartzen duenez, udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, nahi adina jarduera susta ditzake eta nahi adina zerbitzu publiko eman ditzake herritarren beharri-zanei eta nahiei erantzuteko.

Erriberabeitiko Udalaren ustez, beharrezkoa da derrigorrezkoak ez diren ikasketak egin nahi dituzten udalerrri honetako biztanleek goi mailako ikastetxeak dituzten udalerrietan bizi diren ikasleen baldintza berdinak edukitzea.

Deialdia oinarri hauek eta 2016ko uztailaren 14ko bilkuran onartu zen udal ordenantza orokor-rrak arautuko dute, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrrak, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ere, zeinak onartu baitzuen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, dirulaguntzen orokorrraren, Erregelamendua.

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, lehia araubidean, eta oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

#### **Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

2016-2017 ikasturterako eskola garraio publikorako laguntzen deialdi publikoa egiten da, ikastetxe publiko zein pribatuetan derrigorrezko hezkuntza baino maila altuagoko ikasketa ofizialak egiten ari diren ikasleei zuzendua.

#### **Bigarrena. Aurrekontu zuzkidura**

Ekitaldi honetako aurrekontuko 326.480010 partidan badago aurrekontu zuzkidura.

#### **Hirugarrena. Onuradunak**

Eskola garraiorako laguntzen onuradun izan daitezke Erriberabeitiko udalerrian erroldatuta dauden eta 27 urte baino gehiago ez duten ikasleak, baldin eta derrigorrezko hezkuntza baino maila altuagoko ikasketak egiten ari badira edozein ikastegi ofizialetan, publikoa nahiz pribatua dela.

Dirulaguntza honako ikasketa hauek egiteko ematen dela ulertu behar da:

— Batxilergoa

- Erdi mailako LH.
- Hauek hartzen dituen goi mailako hezkuntza:
- Unibertsitateko irakaskuntza
- Goi mailako irakaskuntza artistikoak
- Goi mailako arte plastiko eta diseinuko lanbide irakaskuntzak.
- Goi mailako LH.
- Goi mailako kirol ikasketak.

Kanpoan geratzen dira hizkuntza eskoletako hizkuntza ikasketak, eta espezializazioko goi mailako ikastaroak (masterrak)

#### **Laugarrena. Eskaerak eta agiriak**

Eskaerak Erriberabeitiko Udalarari zuzendu behar zaizkio eta ondoko agiri hauek erantsita eraman beharko dituzte:

- Ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen fotokopia.
- Garraio publikoaren urteko kostuaren aurrekontua edo aurreikusitako gastuaren zinpeko aitortpena.
- Dirulaguntza jasoz gero zein banku kontutan ordainduko den, haren titularraren hirugarrenen fitxa, zeina onuraduna bera izan behar baita.
- Beste edozein erakunde publiko nahiz pribaturi kontzeptu bererako egindako dirulaguntza eskaeraren edo ebazpenaren kopia.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko eta hutsak zuzentzeko epea**

Eskabideak 2016ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.

Aurkeztutako agirietan ez badira eskatutako datu guztiak jaso, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari horiek denak osatzeko. Gainera, ohartarazi egingo zaio epe horretan aurkeztu ezean eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere dagokion ebazpena eman ondoren.

#### **Seigarrena. Balioespen batzordea**

Eskaerak batzorde tekniko batek balioetsiko ditu, zeinak, aurkeztutako agiriak aztertu eta ebazpen proposamena egingo baitu.

#### **Zazpigarrena. Laguntzen zenbatekoa erabakitzeak irizpideak**

Laguntzen zenbatekoa eskatutako zenbatekoaren eta aurkeztutako agirien arabera finkatuko da, eta eskatzaile bakoitzari ez zaio emango kostuaren ehuneko 20 baino gehiago.

#### **Zortzigarrena. Ebazpena**

Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntza guztiak egiaztatu ostean eta Alkatetzaren ebazpen baten bidez ebatziko da deialdia, balioespena egingo duen batzorde teknikoaren proposamenez.

Deialdia ebazteko eta ebazpena argitaratzeko gehieneko epea 2016ko abenduaren 31 izango da. Epe hori igaro eta ebazpen espresik eman ez bada, eskaerak ezetsizat jo daitezke.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien salan.

#### **Bederatzigarrena. Laguntzak ordaintzea**

Laguntzak ordainduko dira aurrez eta hilean behin aurkeztuta garraio publikoa erabili izana justifikatzeko agiriak, erabilitako garraio publikoaren txartel, faktura edo tiketaren bidez.

Laguntzak eskaeran emandako kontu zenbakira banku transferentzia eginez ordainduko dira.

Onuradunei laguntzak emateko eta, hala dagokionean, horiek ordaindu ahal izateko, bukatuta egon beharko du oraindik ere izapidetze fasean dagoen edozein itzulketa edo zehapen prozedurak, hain zuzen, beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk ematen dituen izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan abiarazitakoak.

#### **Hamargarrena. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin**

Deialdi honen ondorioz ematen diren laguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste laguntzekin, ordaindutakoaren ehuneko ehunera heldu arte.

#### **Hamaikagarrena. Ebazpena aldatzea**

Laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

#### **Hamabigarrena. Laguntza itzultzea**

Laguntzak ezeztatu egingo dira eta jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira kasu hauetan:

a) Dirulaguntza lortu bada eskatutako baldintzak faltsutuz edo ematea eragotziko luketenak ezkutatu.

b) Justifikatzeko betebeharra bete ez bada edo behar beste justifikatu ez bada, ordenantza honen 17. artikuluan eta, hala badagokio, dirulaguntza arautzen duten arauetan ezarritako moduan.

c) Eragozpenak, aitzakiak edo oztopoak jarri edo ezezkoa ematen bazaie dirulaguntzen ordenantza orokorraren 6. artikuluan aurreikusitako egiaztapen eta finantza-kontrolako jardunei.

Itzuli beharreko diru zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera gisa hartuko dira, eta, itzulketa ez bada xede horretarako ezarriko den epearen barruan egiten, premiamendu bidea erabili ahalko da.

#### **Hamahirugarrena. Ikuskatzea, kontrola eta jarraipena**

Diruz lagundutako jarduera ikuskatu, kontrolatu eta jarraitzeko eskubidea du udalak, bai eta beharrezkotzat jotzen duen edozein egiaztagiri eskatzeko ere.

#### **Hamalauugarrena. Araudi aplikagarria**

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian, dirulaguntzen udal ordenantza orokorrean eta azaroaren 17ko 38/2003 Legean, dirulaguntzen orokorrean, xedatutakoari jarraituko zaio.

Oinarri hauen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio udalari hilabeteko epean edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri Gasteizko administrazioarekiko auzien salan bi hilabeteko epean.

Rivabellosa, 2016ko urriaren 3a

*Alkatea*

*PEIO RUIZ GARCIA*